



→ Juan Luis Zabala Agerre nobelaren aurkezpenean, atzo, Donostian. GORKA RUBIO / FOKU

Iragan hurbila eta belaunaldi talka

- 'Agerre' nobela plazaratu du Juan Luis Zabalak, eta konbikzio politikorik gabeko gizon bat du protagonista.
- Sentimendu bat gailentzen zaio: erruduntasuna.

Odile Bourguignon Goñi

DONOSTIA— Atzera jo behar da erroari heltzeko: azkoitiarra da Juan Luis Zabala, baina iltzatuta gelditu zitzaion behin Zumaian (Gipuzkoa) ikusitako eszena bat. Aspaldi egiten zen triatloi bat ikusten ari, eta txirrindulari bat antzeman zuen, bizikletatik jaitzita, andre batekin eztabaidan. Akaso txirrindulariak andrea bota zuelako edo: «Ez nituen entzuten, baina txirrindularia barkamen eske sumatzen nuen, eta andrea zorrotz, errietan». Erruduntasuna iradoki zion eszena horrek Zabalar, eta, hain zuzen, erruduntasuna da argitaratu berri duen *Agerre* nobela motzaren abiapuntua. Ereinekin plazaratu du, eta gazteentzako liburuen artean kokatu du liburua argialetxeak. Edo, Inazio Mujika editoreak zehaztu bezala, «gaztelduentzako» liburuen artean.

Zumaia eszena hartan bezala, *Agerre* nobelaren azalean ere bizikleta erori bat ageri da — Ivan Landak egin du—. Istorioa hasi bezain laster, protagonistak emakume heldu bat harrapatuko du bizikletarekin, eta hark ez dio barkatuko. Aita-alaba batzuen familian murgilduko da irakurlea: hirurogeitaka urteko aita da protagonista, eta Suedian kriminologia ikasten ari den hogeitaka urteko alaba narratzailea. Kaletarra izanik ere, *Agerre* baserriaren

izenez deitzen diote aitari, baina *Urrarieta* deituriko Gipuzkoa erdialdeko herri batean bizi da, barkarik. Hala, aita-alabek bideodei bidez mantenduko dute harremana. Mujika: «Ahotsak entzungo ditugu: pentsatzen dutena, sentitzen dutena eta, batzuetan, baita esaten dutena ere —maiz ez baita gauza bera izaten—».

Baina nahastu egingo dira oraina eta oroitzenak. Protagonistak iraganeko kontuak azalduko ditu, bera gazte zeneko garaia; finean, ETA indarrean zegoela bizi izandakoa oroituko du, eta bere ikuspegi pertsonaletik kontatu. «Abertzalea da, baina ez irakurtzeko edo formazioagatik. Abertzalea da inguru abertzale batean jaio delako, euskalduenez inguratuta. Inertzia bidezko abertzalea da, osmosi bidezkoa», argitu du Zabalak. Hortaz, pixkanaka-pixkanaka «korapilatuz» joango da istorioa, eta geruza desberdinak azaleratuz: «Politika, iragana, gizarte honetan indarkeriak utzi dituen zauriak —oraindik ere nabarmen presente daudenak—, eta abar». Mujikak azaldu duenez, ez da —soilik— harremani buruzko istorio bat: «Familiatik gizartera egiten du salto, eta gizartetik auzora».

Erruaren zama astuna

Etakidea zen protagonistak harrapatutako emakumearen semea; tiroketa batean hil zuten,

eta lagun mina zuen. «Protagonistari bi aldetatik datorkio beldurra eta erruduntasuna», kontatu du Zabalak. «Gaztetan errudun sentitzen zen ez zuelako beste batzuek adina egiten bere herriaren alde eta ez zelako behar beste solidario herriaren alde dena ematen zutenengatik, baina gero eta gehiago sentituko du beste erruduntasun mota bat ere: ustez herriaren alde ari ziren horiek egindako gehiegikeriak eta krimenak ez salatu izanarena». Barne gatazka horretan, protagonistak gurari nagusi bat izango du: bizikletaz harrapatu duen emakumearen barkamena.

Nobelana, alabak «ekidistantetzat» jotzen du aita, baina idazlea ez da bat etorri berarekin: «Protagonista ezin da ekidistantea izan gertutasuna sentitzen duelako pertsona batzuekiko, hizkuntza batekiko eta aberri batekiko. Ez dakit inor erabat «ekidistantea» izatea ere posible ote den». Zalantzak igartzen zaizkio protagonistari eta, dena ulertzeko saiakera egiten duen arren, ez da ezeren parte sentitzen. «Badaezpada» argitu du idazleak: «Ni ez naiz ekidistantea, eta nobela ere ez».

Memoria ariketa bat

Liburua hiru ataletan dago berezia: *Errieta*, *Mesedea* eta *Susmoa*. Beste egile batzuen aipua daude bakoitzaren hasieran —tartean daude Dolores Gonzalez Katarain Yoyes eta Ramon Saizarbitoria, esaterako—, baina liburuen hasiera-hasierak dauden hiruk berebiziko garrantzia dute. «Gure historiaren» errepresentazio dirala uste du Zabalak: Joxe Azurmendi, Xabier Letek eta Joseba Sarrionandiak esandakoak ageri dira, hain zuzen. Hala, hausnarke-tarako gonbita egiten du liburua; besteak beste, presente daude belaunaldien arteko talka eta eskuinaren gorakada. Baina, Mujikaren iritziz, Zabalak galderak egin egiten dituen arren, ez da erantzun errazekin konformatzen.

«Garrantzitsua da gazteei ondo azaltzea gure gizartean, oraindik ere, latente dabilen indarkeriaren gertaera hori», esan du Mujikak. «Bestela, Espainian gertatzen ari dena gerta dakiguke, frankismoan hobeto bizi ginela uste dutenak egongo direla». Liburuak ez du zeregin makala: memoria egin eta datozen belaunaldiei iraganaren kontakizuna ahalik eta modu konplexuenean azaltzeko helburua du. Irakurterraza eta erakargarria dela ziurtatu du editoreak: «Ez da soilik irakurri egiten den liburu bat, pentsatzen den liburu bat ere bada, eta halako liburuak, maiz, bukatu ondoren hasten dira». ●



**ALKIZAKO
SORMENAREN
KABIA**

**Bizirik dagoen
sormen gunea**

**2026ko
egonaldi
artistikoa**

Deialdia zabalik



www.fagus-alkiza.eus



Gipuzkoako
Foru Aldundia

berria